

Abarrak

Mikel Garcia

Butaketatik sofara

Mugaldekoak. Zuzendariak: Fernando Bernues, Mireia Gabilondo (telefilma); Eneko Olasagasti, Mireia Gabilondo, Carlos Zabala (telesaila). Aktoreak: Mireia Gabilondo, Isidoro Fernandez, Sara Cozar. Gidoi arduraduna: Patxo Telleria. Tentazioa ekoiztetxea eta ETB. Euskal Herria. 2010

GERTAKARI ETA PASADIZO HISTORIKO GEHIAGO espero genituen. Azken finean, Bigarren Mundu Gerrako Comète sarea da istorioaren abiapuntua, naziek kontrolaturiko lurretan eroritako pilotu ingelesei etxera itzultzen lagundu zien sarea, euskaldunek osatua. Baina telebistarako pentsatutako produktua da *Mugaldekoak* –telefilma alegia, herriz herri aurrestreinatu zutena, eta ETB1en ematen ari diren telesailaren aurrerapen eta akuilu–, eta horregatik, amodio, pasio eta gorroto istorioek hartzen dute protagonismoa, sekretuek, maitasunak, traizioek... Denbora tarte gutxian korapilatzen eta tartekatzen diren tramak beti dira baliabide ona ikuslea telebista kate beraren aurrean mantentzeko, zappingik egin ez dezan, eta hurrengo asteko kapitulurako amua botatzeko. Antzematen da telebista munduaz asko dakiela Gabilondo-Bernues tandemak –*Kutsidazu bidea*, *Ixabelekin* antzerako esperimentera egin zuten–.

Fokua lekuz aldatzea eta bide berriak jorratzea da hain justu *Mugaldekoak*en lorpenik handienetakoa, zinema telebistara eramatea. *Goenkale* eta *Martin* bezalako telesailen kostunbrismotik harago, teknika, zailtasun eta kalitate handiagoen aldeko apustua eskertzekoa da, telebistara produktu landuak iristea, nazioartean ematen ari den joerari jarraiki: zinema-aretoa utzi eta pantaila txiki-egintza egin dute salto maila oneko edukiek. *House*, *Six feet under*, *The Sopranos*, *Lost*... Dagoeneko, ikus-entzunezko kultura modernoaren kontsumoa telebistara aldatu da, produktu ausartagoak eskaintzeko gai, egungo bizimodurako aproposa, eta gainera, zinema baino errentagarriagoa eta eraginkorragoa. Ez dezagun ahaztu, zinema ez da soilik magia, xarma eta lilura; industria eta negozioa ere bada. Norabide horretan, urrats bat gehiago da *Mugaldekoak*. n

ETB.COM



Mugaldekoak proiektuko aktoreak.

UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20
20003 DONOSTIA
© 943 423 424 • Fax: 943 424 424
urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

